

Aitzol Gogorza Otaegi herrikideak, lau eguneko gose greba bat burutu zuen joan den astean, bere egoera bidegabea salatu eta 100.2 legedia aplikatzeko eskaera eginez. Presoak nahasmendu obsesibo konpultsibo izeneko gaitz sendaezina pairatzen du eta honakoaren ondorioz, behin baino gehiagotan larriki ospitaleratua izan da. Gainera, gaixotasunari aurre egin ahal izateko, tratamendu zorrotza darama aurrera eta baraualdiak ondorio oso kaltegarriak izan ditzazke beregan, medikazioaren efektuak alderantzizkoak izan baitaitezke.

Egoera latz honen aurrean, Oreretako Ernaitik Aitzolen berehalako askatasuna exijitzen dugu, salbuespeneko legedia alde batera utzi eta 100.2 artikuluan idatzia dagoen bezala, bere eskubideak bermatzeko eskatzen dugu. Gainera, espetxe politika injustu eta krudel honek errudun argiak ditu, Instituciones Penitenciarias, eta espainiar gobernu, Urkullu eta PNVren konplizitate eta laguntzarekin. Euskal Herriaren bake prozesua oztopatzeko, presoak erabiltzen dituzte, gatazka politikoa konpontzeko bidea ireki beharrean, honakoak jarraipen mugagabea izateko nahia adieraziz eta preso politikoak espetxeetan mantenduz.

Espainiar estatuari eskaera irmoa egiten diogu, bere legediaren baitan preso gaixoen inguruan idatzia dagoen 100.2 legea ezarri diezaien Aitzoli zein gainerako preso gaixo larri guztiei. Pairatzen dituzten gaixotasunek, espetxean okerrera besterik ez baitute egingo. Beraz, Raxoiren gobernu erantzule nagusia izanik, gatazka honen korapiloa askatzeko giltza nagusia haiek dutela azpimarratu nahi dugu eta egoera hobetze aldera pausuak eman ditzaten exijitzen diegu.

Bestetik, gure besarkadarik beroena eskeini nahi diegu, senide zein lagun guztiei. Aitzolen ondoan zaudete beti, berari indarra eta kemena eskainiz, eta berak zuek guztiengatik jarraitzen du aurrera. Gu ere zuen alboan izango gaituzue zuen lagun zein senide den Aitzol herrira ekartzeko borrokan, esparru ezberdinetatik egingo dugu lanketa, elkartasunez, eta hala, lortuko dugu behingoz etxera ekartzea.

Azkenik, bihar SAREk deitutako kontzentrazioan parte hartzera animatzen zaituztegu. Aitzolen aldeko askatasuna aldarrikatzeko garaia da. Geroz eta gehiago izan, orduan eta presio handiagoa egingo diogu zapaltzen gaituen estatuari eta hala, gatazken ondorioen korapiloa askatu ahal izango dugu. Elkartasunez eta konpromisoz borrokatu beharra dugu.

EZ DUGU ITXOITERIK! AITZOL ETXERA! Euskal preso eta iheslari politikoak etxera!

Oreretako Ernaiek, 2017ko otsailaren 24ean.